



Agindua, Ogasun eta Finantzetako sailburuak eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuak batera emana, gazteentzako lehen etxebizitza erosteko abalen lerroa arautzen duen dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzen duena.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko otsailaren 13ko Aginduaren bidez, gazteentzako lehen etxebizitza erosteko abalen lerroa arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindu zen.

Proiektu hau izapidetzeko ardura Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzari eman zitzaion.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldeztu aurreko onarpena beharko dute, dagozkion negoziatio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egite aurretik.

Hasteko Agindua Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak bakarrik sinatu bazuen ere, dekretu-proiektua Ogasun eta Finantza Sailak eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak batera egin dute, eta, beraz, bi sailek sinatu behar dute aldeztu aurretik.

Azaldutakoagatik, landutako proiektuaren testua ikusita, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak batera proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUGU:

Lehenengoa. – Gazteentzako lehen etxebizitza erosteko abalen lerroa arautzen duen dekretu-proiektuaren testua aldeztu aurretik onartzea.

Bigarrena. – Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorriz, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA

